

## IRAKASLE-TALDEA



<sup>1</sup>Garikoitz Beobide Pacheco

[Unibertsitateko](#)

[Irakasle Titularra](#)



<sup>1</sup>Oscar Castillo García

[Unibertsitateko](#)

[Irakasle Titularra](#)



<sup>2</sup>Javier Cepeda Ruiz

[Unibertsitateko](#)

[Irakasle Titularra](#)



<sup>1</sup>Eider Goikolea Núñez

[Irakasle Agregatua](#)



<sup>3</sup>Sonia Pérez Yáñez

[Irakasle Agregatua](#)



<sup>1</sup>Idoia Ruiz de Larramendi Villanueva

[Unibertsitateko](#)

[Irakasle Titularra](#)

Irakasle-taldea



### <sup>1</sup>Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila



ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

### <sup>2</sup>Kimika Aplikatua Saila



KIMIKA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE QUÍMICA

### <sup>3</sup>Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila



FARMAZIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE FARMACIA



G. Beobide, O. Castillo, J. Cepeda, E. Goikolea, S. Pérez-Yáñez, I. Ruiz de Larramendi - Formulazio eta Nomenklatura I. Kimika Ez-organikoa - UPV/EHU 2022



- <sup>1</sup>**Garikoitz Beobide Pacheco**, Unibertsitateko Irakasle Titularra  
<sup>1</sup>**Oscar Castillo García**, Unibertsitateko Irakasle Titularra  
<sup>2</sup>**Javier Cepeda Ruiz**, Unibertsitateko Irakasle Titularra  
<sup>1</sup>**Eider Goikolea Núñez**, Irakasle Agregatua  
<sup>3</sup>**Sonia Pérez Yáñez**, Irakasle Agregatua  
<sup>1</sup>**Idoia Ruiz de Larramendi Villanueva**, Unibertsitateko Irakasle Titularra

<sup>1</sup>Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila  
Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Sarriena Auzoa z/g  
48940 Leioa, Bizkaia

<sup>2</sup>Kimika Aplikatua Saila  
Kimika Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Manuel Lardizabal pasealekua, 3, Donostia  
20018 Donostia, Gipuzkoa

<sup>3</sup>Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila  
Farmazia Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Unibertsitateko Ibilbidea, 7  
01006 Vitoria-Gasteiz, Araba

## GARIKOITZ BEOBIDE PACHECO

Irakasle Titularra UPV/EHUko Kimika Ez-organikoa Sailean. 1979. urtean Bilbon jaiotakoa, Kimika Zientzietan doktoratu zen 2007. urtean. 2007-2010 urteen bitartean, IK4-Tekniker zentro teknologikoan ikerlari bezala aritu zen. 2010. urtetik hona, UPV/EHUko irakaslea da. Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa graduetan eta Material Berrien Masterrean irakasten du. Bere irakaskuntza jarduerak birritan "Bikaintasun" aitortpena eskuratu du unibertsitateko irakasleen DOZENTIAZ ebaluazio programan. 3 Doktoradutzako Tesi eta Gradu/Master Amaierako proiektu anitz zuzendu ditu.

90 artikulua zientifikoaren egilea da ( $h = 27$ ) Materialen Zientzia, Kimika Ez-organikoa eta Kristalografia arloen barruan. 80 aurkezpen baino gehiago egin ditu kongresu zientifiko ezberdinetan (nazionalak eta nazioartekoak). Bere ikerkuntza zientifikoaren muinak dira material metal-organiko porotsu berrien garapena eta hauen aplikazio anitzen azterketa. Hiru nazioarteko patenteren egilea da (PCT/EP2011/070637, WO2014/122105, WO2017/186997). Azkena, 2017. urtean sortutako Poretune S.L. enpresari lizentziatu zen eta ustiapenean jarraitzen du gaur egun. 17 ikerkuntza proiektu publikoetan eta 4 kontratu industrialetan parte hartu du, zeinen artean lau kasutan Ikerlari Nagusia (IP) izan den. 2018tik, "Material metal-organikoak" delako ikerketa taldearen parte da, Eusko Jaurlaritzak A ikerketa talde gisa (maila altuena) sailkatu duena.

## OSCAR CASTILLO GARCÍA

Gasteizen jaiotakoa 1974an, Zientzia Kimikotan doktoradutza eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) 2001 urtean. Gaur egun, erakunde honetan irakasle titularra da Kimika Ezorganikoaren arlo barruan. 165 artikulua zientifikoaren egilea da ( $h = 37$ ) Materialen Zientzia, Kimika Ezorganikoa eta Kristalografia arloen barruan. 100 aurkezpen baino gehiago egin ditu kongresu zientifiko ezberdinetan (nazional eta nazioartekoak). Bere interes zientifikoak fokalizatuta daude material metal-organiko porotsu berrien garapenean: sare metal-organiko polimerikoak (MOFs), entitate metal-organiko diskretuen berezko antolaketa supramolekularrean oinarritutako materialak (SMOFs), aerogel metal-organikoak (MOAs) eta beraien erabilpena arlo ezberdinetan: uren erremediazioa, gasen biltegiaketa, katalisia eta CO<sub>2</sub> erredukzioa. Bi nazioarteko patenten egilea da (WO2014/122105, WO2017/186997). Azkena, 2017 urtean sortutako Poretune S.L startup enpresari lizentziatu zen. 17 I+D proiektutan parte hartu du, zeinen 5 kasutan Ikerlari Nagusia (IP) izan den. 2018tik, Material metal-organikoak ikerketa taldearen buru izan da, Eusko Jaurlaritzak A ikerketa talde gisa (maila altuena) aitortu duena (IT1291-19).

Kimikako Graduan, "Nuevos Materiales" (UPV/EHU) eta "Química Aplicada" Masterretan eta graduondoko ikastaro anitzetan irakaskuntza ematen du. Bere irakas-lana "Bikaintasun" emaitza



eskuratu du irakasleen irakaskuntza jardueraren DOZENTIAZ ebaluazio programan. 7 Doktoradutzako Tesi eta Gradu/Master Bukaerako proiektu anitz zuzendu ditu.

### **JAVIER CEPEDA RUIZ**

2007an Kimikan lizentziatu zen, 2008an lizentziatura graduarekin eta ondoren tesi doktora Kimikan (2013an) UPV/EHU-ren partez jaso zuen, zeinetan Nazioarteko Doktore eta Ez-ohiko Sarien aipamenak eskuratu zituen.

2013 urtetik aurrera Kimikako Graduan irakasle modura dihardu, Irakasle Titularra 2021 urtean bilakaturik, lehenengo hiru ikasturteko irakasgaiak (Laborategiko Oinarrizko Eragiketak, Esperimentazioa Kimika Ezorganikoan eta Kimika Ezorganikoa II) hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz) irakasten dituelarik. Posgraduetao ikasleei zuzendutako ikastaroak ere irakasten ditu eta atzerriko unibertsitateetako irakasle-trukeen jardunaldietan parte hartu du. 10 gradu amaierako lan, 4 master amaierako lan eta doktorego tesi bat ko-zuzendu ditu, eta gaur egun 2 doktorego tesi ko-zuzentzen ditu. Bestalde, nomenklatura kimikoa euskaraz azaltzen duen liburu baten ko-egilea da.

83 artikulu zientifiko, 3 liburu-kapitulu, eta kongresuetan azaldutako 90 komunikazio-zientifiko baino gehiagoetako ko-egile da, azken hauetako baten antolakuntzan parte hartu bazuen ere. 20 ikerkuntza-proiektuetan parte hartu du, horietariko batean ikertzaile nagusia delarik. 2013 urtetik aurrera nazioarteko aldizkarietako 90 artikulu zientifiko baino gehiagotan begirale modura jokatu du, hainbat ikerkuntza-proiektu ere bai. Bere ikerkuntza-lerroak propietate luminiszentek, magnetikoak eta porositatea aurkezten duten polimero metal-organikoen diseinu, sintesi eta karakterizazioan oinarritzen dira.

### **EIDER GOIKOLEA NÚÑEZ**

Kimikan lizentziaduna Manchester Metropolitan University-n eta UPV/EHU-n 2003 eta 2004, bietan Sari Berezia lortuz, eta doktorea 2009-az geroztik (UPV/EHU-n). UPV/EHUko irakasle eta postdoc ikertzailea (2009-2010), postdoc ikertzailea CIRIMAT-Université Paul Sabatier-en Prof. Patrice Simon-en taldean (2010-2011) eta CICenergiGUNE-ko ikertzailea (2012-2017). 2016-2017 tartean CICenergiGUNE-ko superkondentsadore taldeko burua izan zen eta 2017tik UPV/EHUko irakaslea da.

Doktorego tesi 2ren zuzendarikide, biak nazioarteko aipamenarekin. 14 ikerketa proiektu (2tan ikertzaile nagusia izanik), zenbait enpresa-proiektu eta hezkuntza berrikuntzarako proiektu baten aritu da. Aldizkari zientifikoetan argitaratutako 40 artikulutik gora eta liburu kapitulu baten egilekidea. 60 ekarpen baino gehiago egin ditu estatuko eta nazioarteko biltzarretan eta biren

antolakuntzan parte hartu du. Bere ikerketa lerro nagusia energia biltegitratzeko sistema elektrokimikoak dira, superkondentsadoreak eta kondentsadore hibridoak bereziki.

### **SONIA PÉREZ YÁÑEZ**

Kimikan lizentziaduna (2007) eta doktorea (2012; Sari berezia) UPV/EHU. Doktoratu aurreko (2008-2012) eta ondoko (2012-2013, 2014-2015) laguntzak izan ostean, irakasle lanetan aritu da. Farmazia Fakultateko Kimika Ez-organikoa sailean dauka lanpostua, 2016ko irailetik aurrera irakasle atxiki modura, eta 2022an irakasle agregatu gisa.

Irakaskuntzaren arloan, formulazio eta nomenklatura kimikoaren arauak euskarara egokitzen dituen liburuaren egilekidea da. Gainera, ohikoa da zientzia dibulgaziorako ekintzetan, hiru hezkuntza berrikuntzarako proiektutan aritu da; eta zuzendari lanetan aritu da 19 Gradu Amaierako Lanetan (Kimika eta Ingurumen Zientzietako Graduetan) eta Master Amaierako bi lanetan. Bere irakaskuntza jarduera DOCENTIAZ programaren 10. deialdian ebaluatu zen, Bikain emaitza lortuz.

Ikerkuntzari dagokionez, 60 artikulua argitaratu ditu nazioarteko aldizkari zientifikoetan. Hiru liburu kapitulu, eta bi patenteren egilekidea, azkena start-up baten oinarria izanik. Bere ikerketa lerro nagusiak material metal-organiko porotsu berrien garapena eta hauen aplikazio anitzen azterketa du helburu. 14 ikerketa-proiektuetan aritu da, horietako baten ikertzaile nagusia izanik, eta 60 ekarpenetik gora egin ditu estatuko eta nazioarteko biltzarretan, gehiengo hauen ardatza material metal-organiko porotsuen garapena izanik.

### **IDOIA RUIZ DE LARRAMENDI VILLANUEVA**

Kimikan lizentziaduna (2001) eta doktorea (2007, europar aipamena eta sari berezia) UPV/EHU. Unibertsitate horretako irakasle 2009tik. Urte hauetan, 5 doktorego tesien zuzendari edo zuzendarikide izan da; tesi horien artean: 1 nazioarteko kotutoretzan (Marburg Unibertsitatearekin), 4 nazioarteko aipamen eta 3 doktoregoko sari berezi. Ikertzaile/Irakasle bisitari izan da lau zentrotan: CINSO-CONICET (Buenos Aires, Argentina), ICMCB (Bordele, Frantzia), DTU-Risø (Roskilde, Danimarka) eta INQIMAE-Universidad de Buenos Aires (Argentina). 15 ikerketa proiektuan aritu da eta 4 hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan parte hartu du. Egilekide argitalpen ugarian: > 60 artikulua zientifiko, liburu 1 eta 3 liburu kapitulu. 90 ekarpen inguru egin ditu estatuko eta nazioarteko biltzarretan. CNEAIk aitortutako 2 seiurteko ditu.

Materialen zientzian eta egoera solidoaren kimikan espezializatutako zientzialaria da, eta azken urteetan energia konbertsio eta biltegitratzeko material berrien diseinu eta ikerketan egin du lan. Garatzen duen ikerketaren helburu nagusiak honako hauek dira: metal-aire baterietan gertatzen diren oxigenoaren erredukzio (oxygen reduction reaction, ORR) eta oxigenoaren garapen (oxygen



evolution reaction, OER) erreakzioak aztertzea eta energia metatzeko material nanoegituratu berriak sintetizatzea, karakterizazio fisiko-kimikoa egitea eta material hauen erantzun elektrokimikoa aztertzea.